



# **GOBERNU BILERA**

**Prentsa-Txostena  
Erabaki nagusiak**

## **CONSEJO DE GOBIERNO**

**Dossier de Prensa  
Acuerdos destacados**

**Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduak 28**

**Vitoria-Gasteiz, 28 de diciembre de 2021**

## Lehendakaritza

### EUSKADIK ORDEZKARITZA BERRIA IZANGO DU PARISEN

Euskadik atzerrian dituen ordezkariaren sarea zabaldu du, Frantziako ordezkariak sortu eta arautzen duen Dekretua onartu baitu gaur Gobernu Kontseiluak. Ordezkaritza honen irekierak Euskadi Basque Country erakundearen kanpo-posizionamendua hobetzen laguntzen du. Helburu hau Eusko Jaurlaritzak onartu berri duen Euskadi Basque Country 2025 Nazioartekotzeko Esparru Estrategia berriaren ardatzetako bat da.

Euskadiren eta Frantziaren arteko harremanak sektore ugari biltzen ditu: kulturala, linguistikoa, ekonomikoa, industrial edota komunikazioetako. Frantzia izan zen, 2020an, euskal esportazioen helmugako bigarren herrialdea, 3.332 milioi euroko balioarekin, Alemaniaren ondoren. Eusko Jaurlaritzak, oro har, Frantziako hainbat lurralde-erakunderekiko harremanak bultzatzen dituzten erakunde, sare eta lankidetzeta-foroetan parte hartzen du. Horren adibide da Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa euroeskualean bi lurraldeek duten lankidetzeta estua, Pirinioetako Lan Elkartea edota Euskal Hirigune Elkargo bezalako sareak. Gainera, Frantzian euskal gizataldeen presentzia errotua eta gero eta handiagoa da.

Ordezkaritza honen lana honako hauei zuzenduta egongo da:

- Frantziarekin dagoen harreman instituzional ona sendotzea,
- Ekoizpen- edo merkataritza-jarduera garatzen duten edo hasi nahi duten euskal enpresei laguntzea
- Euskal eragile sozioekonomikoentzako aukerak aztertzea eta atzematea
- Frantzian dauden nazioarteko erakundeekin harremanak izatea
- Frantzian bizi den euskal komunitatearekiko egituraketa hobetzea.

Bulego berria Parisen egongo da eta Euskal Autonomia Erkidegoa ordezkatzeko arduratuko da sektore anitzeko interesak defendatu eta sustatzeari, euskal gizataldeekiko harremanei eta garapenerako lankidetzari dagokienez.

Gaur onartutako Ordezkaritzak Eusko Jaurlaritzaren ordezkariaren erakunde-sarea indartzen du. Gaur egun, erakunde-sarea osatzen dute: Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritzak, Euskadiren Argentina-Mercosur-eko Ordezkaritzak, Euskadiren Txile, Peru eta Kolonbiako Ordezkaritzak, Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritzak, Euskadiren Mexikoko Ordezkaritzak eta Euskadiren Madrileko Ordezkaritzak.

## Funtzioak

Oro har, ordezkaritza berriak honako eginkizun hauek izango ditu:

- Euskal Autonomia Erkidegoko eragile ekonomiko eta sozialen arteko lankidetzaz eta topaketa sustatzea Frantzian.
- Erakundeekiko, enpresekiko eta toki-erakundeekiko harremanetarako organoa izatea, bisitak, topaketak, informazio-trukeak eta enpresa-, ekonomia- edo gizarte-loturak garatzeko.
- Euskal Autonomia Erkidegoko operadoreen arteko topaketak egiteko azpiegitura eta laguntza-zentro izatea.
- Frantzian dauden araudi, politika eta aukerei buruz aholkatzea, orientatzea eta informatzea, bai Eusko Jaurlaritzako sailei, bai toki- eta foru-erakundeei, enpresei, unibertsitatei, zentro teknologikoei eta interesa duten gainerako eragile ekonomiko eta sozialei.
- Frantzian jarduten duten Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeen beharrak ebaluatzea eta dagozkien proposamenak bideratzea.
- Euskadin dauden kultura-adierazpen guztiak zabaltzea. Euskararen berezitasuna bereziki zainduko da, kanpoan dauden euskal kolektibitateetako herritarrek, edo kolektibitate horretan interes berezia ez duten pertsonak, hizkuntza hori ezagutzeko aukera izan dezaten.
- Lankidetzaz-harremanak ezartzea euskal kultura, tradizioak eta hizkuntza bultzatzeko erakunde, elkarte eta ikastetxeekin, bai eta Euskadiri arreta berezia eskaintzen dioten toki-erakundeekin ere.

## Segurtasuna

### **EUSKO JAURLARITZAK LANKIDETZA-HITZARMENA IZENPETUKO DU EUSKALEGURALDIA INFORMAZIO METEOROLOGIKOAREN ELKARTEAREKIN**

- **Irabazi asmorik gabeko elkarte honen helburua da sare sozialen eta Interneten bidez ematea denbora errealean gertatzen ari diren egoera meteorologikoei, ohikoei nahiz muturrekoei, buruzko informazioa, bai eta horiek eragin ditzaketen arriskuei eta arazoei buruzkoa ere**

Eusko Jaurlaritzak lankidetzeta-hitzarmena izenpetuko du EuskalEguraldia Informazio Meteorologikoaren Elkartearekin. Elkartearen denbora errealean gertatzen ari diren edo denbora-epe labur samarrean gerta litezkeen egoera meteorologikoei, ohikoei nahiz muturrekoei, eta horiek eragin ditzaketen arriskuei eta arazoei buruzko informazioa ematean espezializatuta dago.

EuskalEguraldia elkartearen helburu nagusia da Euskalmet – Euskal Meteorologia Agentziarekin aktiboki lankidetzan jardutea, eta, lankidetzeta horren barruan, gertatzen ari diren egoera meteorologikoei buruzko testuak, grafikoak, argazkiak eta bideoak emango dizkio, sare sozialen bidez.

Aldi berean, elkarteak muturreko fenomeno meteorologikoei eta tokian tokian nahiz autonomia-erkidegoan izan ditzaketen ondorioei (larrialdiak, hondamendiak edo lazeriak) buruzko informazioa monitorizatuko eta hedatuko du, gizartearen autobabesa sustatuko du dauden arriskuen araberako gomendioak zabalduz, etab.

Azken batean Eusko Jaurlaritzak, muturreko fenomeno meteorologikoen eraginen aurrean autobabes-lanetan gizarte zibila integraztearen bidez, euskal gizartearen erresilientzia eta ezagutza areagotzeko egindako apustua da.

Hitzarmena sinatzen denetik aurrera, EuskalEguraldia Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibilerako Euskal Sistemari sartuko da. Horren aurretik, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak meteorologiarekin eta babes zibilarekin lotutako formakuntza-ikastaro batzuk emango dizkie elkarteko kideei Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian.

## Segurtasuna

### **EUSKO JAURLARITZAK LANKIDETZA-HITZARMENA SINATUKO DU MENDIKO EUSKAL FEDERAZIOAREKIN**

- **Federazioak 33.000 kide baino gehiago ditu, eta segurtasunaren arloan erreferente nagusietako bat da mendiko kirolekin zerikusia duten jardueren segurtasunaren arloan**

Eusko Jaurlaritzak lankidetzeta-hitzarmena sinatu du Mendiko Euskal Federazioarekin. Erakundeak 33.000 pertsona baino gehiago ditu atxikita, eta erreferentzia nagusietako bat da kirol horretako jardueren segurtasunaren arloan.

Federazio honen helburu nagusia da Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzeta aktiboa izatea, mendiko prestakuntzari eta prebentzioari buruzko ezagutzak, bitartekoak eta baliabideak eskura jarritz.

Bestalde, Jaurlaritzak hitzematzen du bere jarduerak finantzatzeko dituela, urteko jardueraren programan sartuta badaude eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan, dagokion ekitaldirako, erakunderen aldeko dirulaguntza nominatibo gisa izendatutako kopuruan.

## Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

### EUSKO JAURLARITZAK HITZARMEN BAT SINATUKO DU GARRAIO, MUGIKORTASUN ETA HIRI-AGENDA KO MINISTERIOAREKIN, EUROPAKO FUNTSEKIN ERAIKIN PUBLIKOAK BIRGAITZEKO SUSTAPEN-PROGRAMA GAUZATZEKO

Eusko Jaurlaritzak Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioarekin hitzarmena sinatzea onartu du, Eusko Jaurlaritzari zuzeneko laguntzak emateko, eraikin publikoak birgaitzeko sustapen-programa (PIREP) gauzatzeko. Helburua da titulartasun publikoko eta erabilera publikoko eraikinak modu jasangarrian birgaitzea. Berreskuratzeko, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan, Europako Errekuilazio eta Errekuanismo Funtsekin. Programa horrek 1.080M € ditu; horietatik, 480M € Automia Erkidegoetarako dira, eta 22,46M € iritsiko dira Euskadira.

Eusko Jaurlaritzak hainbat sailerako eraikinak aukeratu ditu: Kultura, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumena, Hezkuntza, Gobernantza Publikoa eta Segurtasuna. Gainera, hautaketa bat egin da eta erreserba-zerrenda bat sartu da. Zerrenda horretan, sinatu beharreko hitzarmenaren 1. eta 2. faseetan adierazitakoak ezarritako epeen barruan amaitu ezin diren kasuetarako beste jarduerak osagarri batzuk agertzen dira. 1. fasean, 2022ko abendua baino lehen lizitatu eta 2024ko abendua baino lehen gauzatu beharreko proiektuak sartzen dira, eta 2. fasean, berriz, birgaitu beharreko metro koadroen % 80 gutxienez 2024ko abenduan esleituta egon behar dutenak eta 2026ko martxoan gauzatu behar diren lanak.

Eusko Jaurlaritzak aldebiko hitzarmena sinatu ondoren jasoko du transferentzia, eta horrekin aurreikusitako jarduerak finantzatu ditu, inbertsioak kontratatzea eta gauzatzea bere gain hartuz.

#### ERAIKINEN ZERRENDA

	DEPARTAMENTUAK	ERAIKINAK	MRR PIREP
<b>1.FASEA</b>	<b>KULTURA</b>	Energia berriztagarriak era efizientziaren hobekuntza EITB Bilboko egoitzan	2.552.500
	<b>EKONO. GARAP, IRAUNK, JASANG</b>	Bizkaiko Parke Teknologikoko 100. eraikina. Inguratzailea eta kontrol instalazioen hobekuntza	1.448.000
	<b>SEGURTASUNA</b>	Sestaoko Ertzaintzaren Komisaldegia	1.260.000
			<b>5.260.500</b>
<b>2.FASEA</b>	<b>HEZKUNTZA</b>	IES Mungia BHI	3.570.248
		IES ALZA BHI	2.538.816
		IES Francisco De Vitoria BHI	2.183.000
	<b>SEGURTASUNA</b>	Donostiako Ertzaintzaren Komisaldegia	3.150.000
	<b>GOBERNANTZA</b>	Lakua 2 Eraikineko egurraren aldaketa	1.860.108
	<b>KULTURA</b>	Energia berriztagarriak, inguratzaile eta efizientziaren honekuntza EITB Miramongo egoitzan	3.901.328
			<b>17.203.500</b>
<b>GUZTIRA</b>			<b>22.464.000</b>

## Ekonomia eta Ogasuna

### EUSKO JAURLARITZAK ERABAKI DU ESTATUAK AKTIBATUTAKO FUNTSA LURRALDE HISTORIKOEKIN BANATZEA PANDEMIAK AURREKONTUAN IZANDAKO INPAKTUA NEUTRALIZATZEKO

Abuztuaren 3an Euskadik 644,5 M€ jaso zituen Estatuak aktibatutako baliabideetatik pandemiak aurrekontuan izandako inpaktua neutralizatzeko, 684/2021 Errege Dekretuaren bidez. Funtz horiek, Autonomia Erkidegoei banatuak, baldintzarik gabekoak dira eta oinarritzko zerbitzu publikoak indartzeko ez ezik —osasuna, hezkuntza eta gizarte-zerbitzuak, besteak beste— beste eskumen batzuk baliatzeko ere erabil daitezke. Horregatik onetsi du gaur Gobernu Kontseiluak 188 M€ (% 29,19) Lurralde Historikoen artean banatzea.

Eusko Jaurlaritzak egokitzen jo du finantza-lankidetzarako neurriak ezartzea, erakundeen arteko beharrezko koordinazioa eta lankidetzaren ardatz hartuta.

Horretarako, gaur arratsaldean bertan, 18:00etan, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren ezohiko batzar bat egingo da telematikoki, baliabideen banaketa adosteko, Ekarpenen Legean ezarritako koefizienteen arabera. Hortaz, banaketa honako hau izango litzateke:

		M€
<b>EUSKO JAURLARITZA</b>	<b>% 70,81</b>	<b>456,37</b>
<b>LURRALDE HISTORIKOAK</b>	<b>% 29,19</b>	<b>188</b>
	ARABA	30,4
	BIZKAIA	94,79
	GIPUZKOA	62,9

## Hezkuntza

### HEZKUNTZA SAILAK 2 MILIOI EURO BIDERATU DITU IKASTETXEETAN EUSKARAZKO EDUKI DIGITALAK ESKURATZEN LAGUNTZEKO

- **Diruz lagunduriko eduki digital horiek Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetarako eta DBHrako izan beharko dute**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuak proposatuta, Euskadiko itunpeko ikastetxeei dirulaguntza zuzenak ematea, euskarazko hezkuntza-eduki digitalen hornidura finantzatzeko. Dirulaguntza hauen zenbateko osoa, 2.025.240 eurokoa, sare publikoan eduki horiek eskuratzeko erabili diren irizpide berberei jarraituz ezarri da.

Dirulaguntza hauen helburua da, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetarako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako euskarazko eduki eta liburu digitalak erabiltzeko eskubidea (horien erabilera-lizentziak) eskuratu duten ikastetxeei horiek finantzatzen laguntzea, bai 2021-2022 ikasturtean bai 2022-2023 ikasturtean erabiltzeko. Material didaktiko horiek 2021ean erosiak izan beharko dute.

Hezkuntzako liburu digitalak esatean, honako honetaz ari gara: ikasmailaren edo irakasgaiaren curriculumean zehaztutako helburuekin bat datozen baliabide eta material interaktiboak, elementu ikonikoak, ikusizkoak, entzumenezkoak eta ikus-entzunezkoak biltzen dituztenak, irakasleak bere irakaskuntza-beharren arabera erabil ditzan. Material horiei esker, ikasleek informazioa modu sortzaile, erakargarri eta kolaboratiboan miatu eta manipulatu ahal izango dute.

Material didaktiko digital hauek egun indarrean dauden curriculum-dekretuetara egokitu beharko dira, eta ikasleen irteera-profilean definitutako oinarrizko gaitasunak lortzeko baliagarri izan beharko dute. Gainera, ikasleen adinera egokitutako zorrotasun zientifikoa eta hizkuntza-egokitasuna erakutsi beharko dute. Halaber, indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren printzipio, balio, askatasun, eskubide eta betebeharren errespetua islatu eta sustatu beharko dute.

Bete beharreko beste ezaugarri batzuen artean, hizkuntzaren erabilera ez-sexista ere egin behar dute, eta irudietan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua eta estereotiporik gabeta bermatu behar dute. Horiekin batera, familia-aniztasuna, aniztasun afektibo-sexuala eta gainerako errealitate kultural eta etnikoen presentzia bermatu beharko dute.



## Hezkuntza

### **1.069.361 EURO ITUNPEKO IRAKASKUNTZAKO SINDIKATUETAKO 18 LIBERATU FINANTZATZEKO**

Gobernu Kontseiluak gaurko bilkuran baimendu du itunpeko ikastetxeetako sindikatueta 18 liberaturen kostua finantzatzea, 2021-2022 ikasturteari dagokiona. 1.069.361,78 euroko diru-kopurua eskatzen du finantzazio horrek.

Hezkuntza Administrazioak bere gain hartzen du finantzazio hau 2004ko azaroaren 19ko dataz Hezkuntza Sailak sindikatuekin eta sektoreko patronalekin sinatutako akordioei jarraiki.

Aipaturiko akordio horietan jasotzen denez, Administrazioak urtero finantzatuko ditu Euskadiko Gizarte Ekimeneko Ikastetxeetako Lan Hitzarmenaren eremuko 12 liberatu sindikal, eta Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Ikastolen Lan Hitzarmeneko beste 6 liberatu sindikal.

Irakasleak erabateko arduraldian sindikatuko zereginetan aritu daitezten liberatzeak duen kostua finantzatzeko xedea du 1.069.361,78 euroko kopuru horrek. Horietatik, 369.420,87 euro 2021eko iraila-abendua aldiari dagozkie, eta gainerako 699.940,91 euroekin 2022ko urtarrila-abuztua epea finantzatzen da.

## Hezkuntza

**350.000 EURO UPV/EHuren UNIBERTSITATEA-ENPRESA-GIZARTEA  
KONTRATU-PROGRAMAREN 2021. URTEKO FINANTZAKETA  
HANDITZEKO**

- **Gehitutako zenbatekoa COVID-19aren ondorioz aplikatutako salbuespenei aurre egiteko erabiliko da.**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuak proposatuta, gaurko bileran onartu du 349.999,99 euroan handitzea Euskal Herriko Unibertsitateari «Unibertsitatea-Enpresa-Gizartea» Kontratu-Programaren 2021. urterako finantzaketa.

Kontratu-programa honek bere barne hartzen du, besteak beste, "*Ekitateari erantzutea: familien tasetarako ordainketa*" ekintza, 2021erako 2.091.469 euro dituen. Ekintza horren barruan sartzen da salbuespenak aplikatzea familia ugariarentzat, terrorismoaren biktimetzat, genero-indarkeriaren biktimetzat edo desgaitasunen bat duen pertsonaren bat ardurapean duten familientzat, besteak beste. Horrela, gaur Gobernu Kontseiluak onartutako kopuru gehigarriarekin, UPV/EHuren Unibertsitatea-Enpresa-Gizartea Kontratu-Programaren finantzaketa 2.441.469 eurokoa da.

Gehitu den kopurua lehen deskribatutako kasuei aplikatutako salbuespenetarako erabiliko da, Covid-19a dela-eta gehitu egin baitira. Hau dagoeneko aurreikusia gelditu zen ekainaren 16ko Aginduan, 2020-2021 ikasturterako goi-mailako hezkuntzaren prezio publikoak finkatzen dituen eta salbuespen eta murrizketetarako baldintzak zehazten dituen aginduan.

Zenbateko horren ordainketa 2021ean egingo da, UPV/EHUK 2020-2021 ikasturtean ikasleei aplikatutako salbuespen eta murrizketa guztiak justifikatu ondoren.

### **2019-2022 aldirako Kontratu-Programak**

2019ko uztailean, eta 2019-2022 Unibertsitate Sistemaren Planaren baitan, Hezkuntza Sailak hiru Kontratu-Programa sinatu zituen Euskal Unibertsitate Sistema osatzen duten hiru unibertsitateetako bakoitzarekin. Orotara 200 milioi euro baino gehiagoko finantzazioa (200.086.186 €) jasotzen da lau urterako (2019-2022):

- “Unibertsitatea-Enpresa-Gizartea” Kontratu-Programa
- “Bikaintasun-ikerketa” Kontratu-Programa
- “Prestakuntza eta Nazioartekotzea” Kontratu-Programa

Kontratu-Programak unibertsitateak finantzatzeko tresna bat dira. Unibertsitate bakoitzaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean adostutako irakaskuntza, ikerketa eta kudeaketa hobetzeko helburuak lortzeak baldintzatzen du finantzaketa hori. Unibertsitate-politikako tresnak dira, eta aparteko baliabide ekonomikoak helarazten dizkiete goi-mailako hezkuntza-zentroei. Hauek jasotzea, aldean artean adostutako helburu estrategikoak betetzearen baldintzapean dago.

## Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

### **ELANKIDETZAK EUSKADI ETA KUBAREN ARTEKO ELKARLANA BABESTUKO DU ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA ALORREAN**

Gobernu Kontseiluak onartu du 200.000 euroko dirulaguntza zuzena Tecnalia Research & Innovation zentroari. eLankidetzak-Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak kudeatuko du laguntza eta Habanako Unibertsitateko Berrikuntza eta Garapenerako Fundazioarekin elkarlana sustatzeko balioko du. *Euskadi-Kuba berrikuntza ekosistemak konektatzen* garapenerako lankidetzaren ekimenaren helburua da aliantzak eta esperientziak trukatzeko zientzia, teknologia eta berrikuntza alorrean.

Ekimen honek lagundu nahi du, besteak beste, berrikuntza teknologiko-zientifikoa, talentu teknologikoa erakartzea eta ikerkuntza bikaintasuna bezalako erronkei elkarrekin aurre egiten, garapen sozial eta ekonomikoa hobetzeko.

Hala, Euskaditik Kubako berrikuntza ekosistemarekin partekatuko dira ikasitako jardunbide egokiak eta ikasgaiak, eta bertan parte hartzen duten euskal eragile guztien ikuspegia eta interakzioak txertatuko dira. Kubak, bere aldetik, gauza bera egingo du, eta bere ezagutza eta esperientzia partekatuko ditu berrikuntzaren euskal ekosistema elikatzeko.

Ekimena Kubako Gobernuaren Kanpo Merkataritzako eta Atzerriko Inbertsioko Ministerioak (MINCEX) eta eLankidetzak 2020ko uztailan sinatutako garapenerako lankidetzaren arloko ulermen memorandumaren baitan dago. Memorandumak bi lurraldeen arteko garapenerako lankidetzako jarduera arautzen du, eta esplizituko jasotzen ditu zientzia, teknologia eta berrikuntza bultzatu beharreko sektore gisa.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### KIROLEKO DOPINAREN AURKAKO LEGEAREN BIGARREN ALDAKETA ONARTU DU EUSKO JAURLARITZAK

- **Horrela egokitzen da indarrean dagoen Legea Dopinaren aurkako Munduko Kodean egindako azken aldaketetara.**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du [Kiroleko Dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legearen](#) bigarren aldaketaren proiektua. Lege horren lehenengo aldaketa 2018an egin zen ([1/2018 Legea, ekainaren 7koa](#)), Dopinaren aurkako Munduko Kodean egindako aldaketetan oinarrituta. Bigarren aldaketarako, Dopinaren aurkako Munduko Kode berria hartzen da kontuan, Polonian egindako Dopinaren aurkako V. Munduko Konferentzian onartua 2019ko azaroan, eta 2021eko urtarrilaren 1ean indarrean jarria. Gaur onartutako testua Legebiltzarrera bidaliko da, bertan eztabaidatu eta onar dezaten.

Kiroleko Dopinaren aurkako Legearen bigarren aldaketaren proposamena Dopinaren aurkako Munduko Kodean jasotako arau eta irizpideen arabera interpretatu behar da, Dopinaren aurkako Munduko Agentziak onartu eta argitaratutako estandar internazionalak eta erakunde horrek unean-unean ezarrita dituen dokumentu teknikoak barne. Aldaketak kirolarien sailkapen bat ere hartzen du barne, haien kirol-maila —internazionalak edo ez— eta egoera —federatuak edo ez— kontuan hartuta. Kirolariak honela sailkatzen dira:

- **Nazioarte mailako kirolari federatuak:** federatuta dauden eta, horrez gain, lortu dituzten emaitzak edo maila direla-eta, unean uneko nazioarteko federazioak —entitate horrek zehaztutako irizpideen arabera— federatutzat jotzen dituen pertsonak.
- **Nazioarte mailako ez diren kirolari federatuak:** federatuta egon arren nazioarte mailakotzat jotzen ez diren pertsonak. Era berean, halakotzat hartuko dira federazio-lizentziaren indarraldia amaitu zaiela-eta une jakin batean federatuta ez egon arren berriro federatuta egongo direla eta kirol-jarduera garatzen jarraituko dutela aurreikusten den pertsonak.
- **Amateurrak:** federatuta ez egon arren, lege honen aplikazio-eremuan sartzen diren kirol-lehiaketa edo -jardueretan parte hartzen duten pertsonak, haietan erregularitasun handiagoz edo txikiagoz parte hartzen dutela ere.
- **Babestuak:** jarraian adierazitako egoeretako batean dauden pertsonak.
  - Dopinaren aurkako araudia haustean hamasei urte beteta ez dituztenak.
  - Dopinaren aurkako araudia haustean hemezortzi urte beteta ez dituztenak, baldin eta kontrol-talde erregistratu batean sartuta ez

badaude eta ez badira inoiz lehiatu kategoria irekiko edo absolutuko nazioarteko ekitaldi batean.

- Adina ez den beste arrazoi bat dela eta, indarrean dagoen legeriaren arabera gaitasun juridikorik ez dutenak.

Hala, kirolari bakoitzari eskatu ahal izango zaizkion betebeharrak edo erantzukizunak ezartzen ditu legeak, haien tipologiaren arabera.

Kiroleko Dopinaren aurkako Legearen bigarren aldaketak beste erantzukizun bat ere jasotzen du kirolarientzat, haien inguruko langileentzat eta botere publikoentzat, pertsona bati dopinaren arloko arau-hauste batengatik zigor, diziplina edo administrazio-zehapen bat ezarri zaionean, ez jasotzea hark emandako kirol-zerbitzurik. Pertsona horien estaltzaile edo bitartekari gisa jarduten dutenekiko lotura ere sartzeko da erantzukizun horretan. Arau hori haustea oso larritzat hartuko da.

Era berean, arau-hauste oso larritzat hartuko da edozein motatako mehatxu edo larderia-egintza bideratzea, dopinaren aurkako arauekin, Dopinaren aurkako Munduko Kodean aurreikusitakoarekin edo lege honekin lotutako ustezko arau-hauste edo ez-betetze bati buruzko informazioa jakinarazteko asmoa kentzeko. Kasu horretan, eta gertatutakoaren larritasunean eta zirkunstantzietan oinarrituta, eten, kendu edo eragotzi egingo da federazio-lizentziaren lorpena, bi urtez gutxienez edo betiko.

Dopinaren aurkako organoak bitan zatitu ahal izango du kirolariari hartutako lagina, balizko arau-hausteen preskripzio-epareen barruan analisi berriak egin ahal izateko. Laginak gordetzeko gehieneko epea 10 urtekoa izango da, jasotzen diren egunetik zenbatzen hasita.

Araudi berriaren arabera, debekatutako substantzien eta metodoen zerrendan abusuzkotzat jotzen diren substantzia batzuk sartzeko dira: gizarte-eremu jakin batzuetan zenbaitetan erabiltzen direnak, baina kirol-errendimendua hobetzeko interesik edo helbururik gabe. Arau-hausleak frogatu ahal badu substantzia hori lehiaketatik kanpo hartu zuela eta kirol-errendimenduari zerikusirik ez duela, hiru hilabetekoa izango da etete- edo desgaitasun-aldia. Kasu horietan, zaleak edo babestuak edo babestuak izanez gero, kargu hartze hutsa izan daiteke aplikatu beharreko zehapena, etenaldirik edo desgaitasunaz ezarri gabe.

Aldaketaren arabera, arau-haustetzat hartuko dira honako jokabide hauek ere, saiakera-maila sinplean eginak direnean, nahiz eta gauzatu ez:

- Kirolean debekatutako edo baimendu gabeko substantziak edo metodoak erabiltzea edo kontsumitzea.
- Dopina kontrolatzeko eta zigortzeko prozeduretako edozein elementu aldatzea, faltsutzea edo manipulatzeko.
- Kirolariari substantziak ematea, banatzea, eskaintzea, erraztea edo hornitzea, edo kirola egiteko arauz kanpoko edo debekatutako metodoak erabiltzea.

- Metodo edo substantzia debekatuak edo arauzkoak ez direnak erabiltzeko egoerak sustatzea, bultzatzea, eragitea edo erraztea, edo beste edozein jarduera baldin eta kirolariak bultzatzen baditu dopina kontrolatzeko arauak onartzen ez dituzten produktuak erabiltzera edo jokabideak erakustera, kirolean debekatutako edo baimendu gabeko substantziak edo metodoak kirolarien eskuera jartzea helburu hartuta.
- Kirol-zentroetan kirolean debekatutako substantziak eta metodoak uztea, merkaturatzea edo banatzea, edozein modalitatetan. Era berean, debekatuta dago aipatutako kirol-zentroetan substantziak eta produktuak kontsumitzera bultzatzea.

Gainera, pertsona batek onartzen badu egindako arau-haustea edo dopinaren aurkako erakundeak proposatutako zehapena, etenaldia edo desgaiakuntza-aldia murriztu ahal izango da, betiere kontuan hartuta arau-haustearen larritasuna, erruduntasun-maila eta arau-haustea onartzeko azkartasuna. Era berean, zehapena betetzen ari den bitartean, kirolari bat izanez gero, lehiaketaz kanpoko dopin-kontrolak egin ahal izango zaizkio zehatuari, eta kontrol horiek egitera bideratutako zenbait betebeharrak betetzea eskatu ahal izango zaio, besteak beste, datuak ematea, lokalizaziorako. Zehapena jaso duen pertsonak, ezarri zaion etenaldian edo desgaiakuntza-aldian, ez badu bete debekatu zaizkion lehiaketa edo jardueretan ez parte hartzeko betebeharra, lortutako emaitzak ez dira onartuko, eta jatorrizko zehapen-aldiaren amaieran beste etenaldi edo desgaiakuntza-aldi bat gehituko zaio, jatorrizkoaren edo hasieran ezarritakoaren iraupen berekoa.

Kiroleko Dopinaren aurkako Legearen bigarren aldaketak ere indartu egiten du pasaporte biologikoaren tresnak duen bideragarritasuna, dopinaren alorreko arau-hauste jakin batzuk egin ote diren zehazteko trena baliozkoa eta onargarria delakoan. Legean ezartzen denez, pasaporte biologikoan kontrako emaitza bat lortzea aditu-froga izango da, eta balio zientifikoa izango du, debekatutako substantziak erabiltzeari edo kontsumitzeari edo debekatutako metodoak erabiltzeari dagokion arau-haustea existitzen dela jotzeko. Kasu horietan, Dopinaren Aurkako Munduko Agentziaren emaitzen kudeaketari, kontrol eta ikerketei eta laborategiei buruzko nazioarteko arauak errespetatu eta kontuan hartu beharko dira.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **EUSKAL HERRIKO ITZULIAREN AZKEN HIRU EDIZIOETAKO KARTELAK BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOAN GORDEKO DIRA**

Gobernu Kontseiluak argi berdea eman dio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Bilboko Arte Ederren Museoaren arteko komodatu-kontratuari, Euskal Herriko Itzuliaren azken hiru edizioetako (2019, 2020 eta 2021) kartelak museoarialdi baterako emateko.

2019az geroztik, aurreko urtean Lan Literarioen Ilustrazio kategoriako Euskadi Literatura Saria irabazi zuen pertsonak diseinatu du Euskal Herriko Itzuliaren kartela. 2019an Yolanda Mosquerak egin zuen txirrindularitza lasterketaren kartela, 2020an Asisko Urmenetak eta 2021 honetan Miren Asiainek. Hiru kartel horiek doan utziko zaizkio Bilboko Arte Ederren Museoari, gorde, zaindu eta kontserba ditzan. Museoak, gainera, XX. mendetik Euskal Herriko Itzuliari dagozkion kartelak erakusten dituen areto bat du.

Arte Ederren Museoak hiru kartel jasoko ditu, 180 x 129,5 cm-koak koloretan eta digitalki erreproduzituak, 2019., 2020. eta 2021. urteei dagozkienak, baita azken urte honetako pintura originala ere, 40 x 28,5 cm-ko tamaina duena. Obra horiek museoaren funtsetan gordeko dira kontratua indarrean dagoen bitartean, hau da, gutxienez bost urtetan.

## Presidencia

### EUSKADI CONTARÁ CON UNA NUEVA DELEGACIÓN EN PARÍS

Euskadi amplía su red de delegaciones en el exterior, con la aprobación hoy en el Consejo del Gobierno del Decreto por el que se crea y regula la delegación en Francia. La apertura de esta Delegación contribuye al logro de *Mejorar el posicionamiento exterior de Euskadi Basque Country*, uno de los ejes de la nueva Estrategia Marco de Internacionalización Euskadi Basque Country 2025, aprobada recientemente por el Gobierno Vasco.

La relación entre Euskadi y Francia abarca un amplio abanico de sectores, cultural, lingüístico, económico, industrial o de comunicaciones. Francia fue, en 2020 el segundo país de destino de las exportaciones vascas, por un valor de 3.332 millones de euros, después de Alemania. El Gobierno Vasco en su conjunto participa en instituciones, redes y foros de colaboración que impulsan las relaciones con distintas entidades territoriales francesas. Ejemplo de ello es la estrecha cooperación que ambos territorios mantienen en la Euroregión Nueva Aquitania-Euskadi-Navarra; en redes como la Comunidad de Trabajo de los Pirineos o con la *Communauté d'agglomération Pays Basque*. Además, Francia cuenta con una arraigada y creciente presencia de colectividades vascas.

El trabajo de esta Delegación estará dirigido a:

- fortalecer la buena relación institucional existente con Francia,
- acompañar a las empresas vascas que desarrollan actividad productiva o comercial o que buscan iniciarla,
- explorar y captar oportunidades para los agentes socioeconómicos vascos,
- entablar relaciones con organizaciones internacionales presentes en Francia,
- mejorar la vertebración con la comunidad vasca residente en Francia.

La nueva oficina estará situada en París y será la encargada de la representación de la Comunidad Autónoma de Euskadi en lo que se refiere a la defensa y promoción de intereses multisectoriales, las relaciones con las colectividades vascas y la cooperación al desarrollo.

La Delegación aprobada hoy viene a reforzar la red institucional de delegaciones del Gobierno Vasco que hoy en día está compuesta por la Delegación de Euskadi para la Unión Europea, la Delegación de Euskadi en Argentina-Mercosur, la Delegación de Euskadi en Chile, Perú y Colombia, la Delegación de Euskadi en Estados Unidos, la Delegación de Euskadi en México y la oficina de Euskadi en Madrid.



## Funciones

Con carácter general, la nueva delegación tendrá las siguientes funciones:

- Promover la colaboración y el encuentro entre los agentes económicos y sociales de la Comunidad Autónoma de Euskadi en Francia.
- Servir de órgano de relación con las instituciones, empresas y entidades locales para el desarrollo de visitas, encuentros, intercambios de información y el establecimiento de vínculos empresariales, económicos o sociales.
- Servir de infraestructura y de centro de apoyo para el establecimiento de encuentros entre operadores de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
